

BALEIKE

ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA



MAMMA MIA! GURE MUSIKALA

**ABBAREKIN
HERRIA DANTZAN**



ENDAÑETAK
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak etxeko altzariak
eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA · ☎ 943-14 34 43 · www.biyona.net



BALEIKE 315

2021-ABENDUA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 4 | Hitz tantak Jabi Gonzalez Toston
<i>Nagore Etxabe</i> | 26 | Plazan bazan |
| 6 | Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio
Aprea
<i>Karmele Sasiain</i> | 29 | Zientzia eta teknologia Gorka
Zabaleta
<i>Burujabetza teknologikoa Zumaian</i> |
| 8 | Hainbat aburu Zumaiaiko San Juan
Egoitzako ELAko delegatuak
<i>Prekariatatea eta abandonua</i> | 35 | Orduan bai Imanol Azkue
<i>Laboreak</i> |
| 9 | Errematea Jose Castillo
<i>Pentsiodunen eredia</i> | 41 | Kultura Juan Luis Romatet
<i>Performancearen bidetik doan txaranga</i> |
| 10 | Erreportajea Maria Maya Manterola
<i>Mamma mia! Gure musikala</i> | 43 | Agenda |
| 16 | Elkarrizketa Amaia Urbieta Arruti
<i>Amaia Aldalur</i> | 44 | Literatura Antton Peñalba
<i>Bi adiskide haize kontra</i> |
| 20 | Erretratua Jabi Gonzalez Toston
<i>Maria Isabel eta Maria Luisa Galdona</i> | 45 | Nire txanda Peio Carballo Ostolaza
<i>Zoriontasunaren giltza?</i> |
| 25 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Olentzero existitzen al da?</i> | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Memoriaren zaborteia</i> |

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Zuzendaria

Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta
Imanol Azkue
Jabi Gonzalez Toston

Amaia Urbieta Arruti

Argazkilaria
Arnaitz Rubio Aprea
Diseinu arduraduna
Maria Lopez
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpuru
publizitatea@baleike.eus
Administrazio arduraduna
Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus
Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaia
Udala



Nagore Etxabe

TESTUA: JABI GONZALEZ TOSTON

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Mendietako katiluak dira antuxunak. Izen horixe eman dio Nagore Etxabe musikariak (Zumaia, 1989) bere azken proiektuari: Antuxuna. Proiektua sortze prozesuan dago, eta oraindik datarik eta gune finkorik ez duen kontzertu batekin itxiko da, musika eta irudiak uztartuko dituen emanaldi berezi batekin.

Zergatik hautatu zenuen antuxuna hitza zure proiektua izendatzeko?

Batetik, fonetikoki interesgarria egiten zitzaidalako, eta, bestetik, proiektuarekin guztiz bat datorren poema batekin lotura duelako. Poemak dio iturri zaharretatik ur berria edaten dugula beti, baina ur hori edateko euskari bat ere behar dugunez, eta antuxuna iturri horietara lotuta egoten zenez, metaforikoki interesgarria egin zitzaidan.

Horrez gain, argi nuen, baita ere, izen artistiko berri bat hartzea garrantzitsua zela Nagore bateria joletik bereizteko.

Zertan datza proiektua?

Euskal musika tradizionalari gaur egun ditugun baliabide teknologikoak aplikatu eta digitalki birmoldatu nahi dut ikus-entzunezko emanaldi ezberdin bat eskaintzeko. Aurreko galderarekin lotuta, esan genezake, aipaturiko iturri zaharra, gure abesti zahar horiek direla; ur berria, aldiz, nik emango diodan moldea.

Nola ari zara euskal klasiko horiek birsortzen?

Hautatu ditudan abestietako melodia eta hitzei soilik eutsita. Oinarria mantendu nahi dut, iturri zaharretatik edan dudalako, esan bezala. Halere, aitortu behar dut, tarteka, gustuko ez dudan estrofaren bat ere ezabatu dudala, baina, orokorrean, abesti guztiak errespetatu ditut. Hortik aurrera, ur berria nik sortua da. Horregatik, oinarrian, musika folk estilokoa dela esan daiteke, digitalki sortua izan arren.

Badira zurearen antzeko proiektuak? Edo erabat berritzailea da?

Nik hemen Euskal Herrian ez dut ezagutzen. Egia da Kalakan taldeak ere euskal abesti zaharrak berpizten dituela, baina euren sonoritatea eta estetika guztiz tradizionala da, nahiz eta Peio Reparazekin grabatu duten azken diskoan sintetizadore batzuk sartu dituzten. Iruditzen zait euskal folklorearen barruan sartzen diren talde guztiek gauza berdintsuak egiten dituztela.

Dena den, baditut erreferenteak, nik lortu nahi dudan mundu tradizionalaren eta elektronikoaren arteko lotura hori egitera iritsi direnak. Ordizian ezustean ezagutu nuen Mercedes Peon galiziarra, esaterako.

Gidatuko zaituen mapa bat badago, beraz. Ez zara huts-hutsetik abiatu.

Hori inoiz ez. Ereduak beti daude, gustukoak eta ez gustukoak. Azken horiek ere kontuan hartzea garrantzitsua da, nahi ez duzuna argi izatea erreferentzia bat izatea da.

Mikromezenazgo kanpaina berezi bat ere izan duzu abian proiektua finantzatzeko. Zertan da ezberdina?

Tartean erakunde publiko bat dagoelako da berezia. Aldundia, kasu honetan, eta Crowdfunding beharrean, match-funding deitzen zaio, instituzioak bikoiztu egiten duelako jasotako dohaintza bakoitza. Esan behar dut, halere, ez dudala batere gustuko formatua, dagokigun dirulaguntza zuzenean eman beharrean, itxura egitera behartzen gaituztelako.

Argi daukat, baita ere, jasotako diru guztitik erdia proiektua garatzeko behar dudan azpiegitura finantzatzeko baliatuko dudala eta beste erdia nire soldata izango dela. Hori ere aldarrikatu nahi dut proiektu honekin, artistok egiten dugun lanaren balioa, gu ere langileak garelako, etengabe sortzen ari garelako trukean ezer jaso gabe, gehienetan. ■■■



Karmele Sasiain

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Zumaian jaio nintzen, 1965ean, eta hemen bizi izan naiz ordutik. Administraritzia ikasi nuen. Bost zumaiar ginen guztira ikasketa horiek egiten, eta horietatik hiru Zumaiaitik joan ziren. Nik ez dut horretarako gogorik inoiz izan.

Arrantzaren deskargetan lanean irabazi nuen nire lehen soldata, Ondarroan. Emakumeek egiten dute lan hori: itsasontzitik portura ez, baina lonjan-eta prestatzea bai. Nire bikotekideak, orduan, etxeko itsasontzi baten administrazioa hartu zuen. Gero, Zumaian bertan lan egiteko aukera suertatu zitzaidan, Paolaldean erosi genuen lokalean arrandegia jarrita. Ondarroan bertan, plazan, hasi nintzen arraina prestatzen ikasten, xerratzen-eta. Zarautzen segitu nuen, formakuntzako praktika batzuk izango balira bezala. Niretzat esperientzia ederra izan zen, eta oraindik ere harreman ona daukat Zarauzko arrandegiko jendearekin. Familia bat bihurtu gara.

San Telmoren irudia prozesioan eramaten lehen emakumea izan nintzen. Santua eramateko tradizio hori familian errotuta dugu. Gure aitak eramaten zuen, baina gaixotu zenean, tradizioa errespetatuz, familiako beste kideek hartu zuten ardura. Beti gizonezkoek eraman izan dute irudia; aitaren aldetik, gizonezko bakarra zegoen, gure lehengusu Jon, eta hark eraman izan zuen santua aitak ezin izan zuenean. Lehengusua ere gaixotu zen, ordea, eta hark ezin zuenez, nirekin jarri ziren harremanetan. Etxean badugu ohitura hori, baina agian gure semeek ez zuten jarraitu nahi. Seme-alabek, baina, harreman oso estua zuten

aitonarekin, eta berehala baietz esan zuten. Imanol semea hasi zen santua eramaten. Nik, hala ere, arantza hori hor nuen, irudia eramateko gogoa. Pandemiaren aurretik egin zen azken prozesioa; garaiz joan ginen Parrokiara, eta zati batean eramatera animatu ninduten. Oso barrenean daramadan zerbait da; negar asko egin nuen, baina ederra izan zen. Aita omentzeko modua izan zen.

Hondartzara joateko zaletasuna dut. Uda bat eguzkirik gabe irudika dezaket, baina hondartzarik gabe ez. Eguzkia gehiago gustatzen zait neguan; udan ere bai, baina maite ditut lainotutako egunak hondartzan, jende gutxiago egoten delako. Urte osoan zehar gozatzen dut hondartza, neguan ere asko joaten gara; egun gutxi igarotzen dira hondartzara joan gabe. Erlaxatzen nauen toki bat da; ez naiz inoiz nekatzen, are eta gutxiago itsasoaren soinua entzuten dudanean. Oporretan ere saiatzen gara astebete edo Kanarietara joaten. Paseatu, egon, irakurri, lagunekin egon, zerbeza bat hartu, bokadilo bat jan ilunabarra ikusten dugula... hori umeekin mila aldiz egin dugu. Gure umeak hondartzan koskortu dira.

Ez naiz geldirik egotekoa. Txikitatik dantzan ibili naiz. Beti Gazten hasi nintzen; lehen, gure garaian, ez zegoen besterik. Kuadrillakoak ibiltzen ginen dantzan, eta halaxe jarraitzen dugu oraindik ere. Zorte handia izan dut, ez dut-eta inoiz lesiorik izan.

Kirola egunero egiten dut. Gustatu egiten zait, eta ezin dut egon kirolik egin gabe. Ez da markarik egin behar dudalako; gorputzak eskatu egiten dit. Nire ongizaterako egiten dut.

Kirola, dantza eta hondartza, horixe da bizitza niretzat. ■■■



Prekarietatea eta abandonua

Zumaiako egoitzako langileon eta bertan bizi diren egoiliarren errealitateak benetan kezkatzen gaitu. Pandemia aurretik gure lan baldintzak prekarioak ziren eta pandemiak geroztik gero eta egoera larriagoa dago egoitzetan. Baina badirudi Gipuzkoako Foru Aldundiari ez zaiola gehiegi axola. Gipuzkoan, sektore honetan, dagoeneko 254 greba egun eginak ditugu langileok. 2016tik lan baldintzak hobetu gabe ditugu eta egoitzetako ratioak hobetu gabe daude 2007tik.

Horixe da Zumaiako langileok bizi dugun egoeraren abiapuntua: prekarietatea eta abandonua. Erresistentzietan gaur egun dagoen eredia erroto aldatu beharra dago. Izan ere, Gipuzkoako adinekoen egoitzen % 51

irabazi asmoa duten enpresak dira (gehienak multinazionalak, gurea barne), % 27 erresistentzia publikoak dira eta gainerako %22a fundazio edo patronatuak dira (lukrorik gabeak). Sistema horren guztiaren atzean negozio itzela dago, enpresa pribatuen interesak lehenesten dira pertsonen ongizatearen gainetik, eta hori onartezina da.


Gure egoitza ere sistema horren parte da. Lehen Eulen sociosanitarios enpresak kudeatzen zuen egoitza eta 2019ko urrian, gure egoitzaren kudeaketa Zaintzen enpresak hartu zuen. Enpresa batetik bestera subrogatu gintuzten eta gauzak oso okerrera egin dute:

Murritzketak egon dira mantentze lanetan (horrek eraikinean aberiak eta zuloak areagotu ditu), garbitasuneko

langile gutxiago daude, elikagaien kalitatea ere asko murriztu da, erizainak eta psikologoak ez dira ordezkatzen eta sukaldeko langileen lan karga areagotu da bertako garbiketarak egiten zituen enpresa kendu dutelako. Horri guztiari gehitu behar zaio ez digutela behar bezala ordaintzen, akatsak daude uneoro nominetan. Behin eta berriz ari gara errefortzuak eta pertsonal falta salatzen, eta ez digute kasurik egiten edo ekonomikoki bideragarria ez dela esaten digute. Nazkatuta gaude beti berdina entzuteaz.

Halaber, gero eta lan karga handiagoak dauzkagu, eta zama fisiko eta emozionala hirukoiztearen ondorioz, lankide gero eta gehiagok hartzen dute baja ezin dutelako gehiago.

HAUXE BAI JENEROA!



Gure egoiliarrei dagokienez, pandemiak eta zerbitzuaren kudeaketak izan dituen aldaketak guztiz eragin die. Langileok sektorizatuta egiten dugu lan pandemiak geroztik (bakoitza bere solairuan) eta egoiliarrek ere hala daude. Duela gutxi arte euren geletan egiten zuten bizitza eta orain, gutxienez, solairu bakoitzeko geletara doaz jatera.

Bertako langileok ahal dugun guztia egiten dugu euren ongizatea bermatzeko, gu gara eurekin egunero gaudenak eta asko sufrizten dugu eurak horrela ikusita. Baina lan kargetik eta egun ditugun lan baldintzek ez digute permititzen gure egoiliarrek behar bezala artatzen. Eurekin denbora gehiago pasa nahiko genuke, beraiei entzun, barre algarra gehiago egin, abestu, zaindu..., baina ezinezkoa da. Sistema honek ez ditu erabiltzaileak inola ere kontuan hartzen.

San Juan Egoitzako langileak beti izan gara emakume borrokalariak eta horretan jarraituko dugu. Azken urte hauetan ate asko jo ditugu: Kabia organismo autonomora jo dugu salaketak sartzeko, enpresarekin hainbat bilera egin ditugu, salaketa publikoak egin ditugu, elkarretaratzeak, grebak, Zumaia Udal Gobernuko ordezkariekin ere bildu gara... eta ez dugu amore emango. Argi daukagu egoitzetako egoera hobetzeko modu bakarra kalera irtetea dela.

Asel Luzarraga idazleak zioen modura, “uste asko atzean uztean baino ez dira uztarik emankorrenak hazten. Eta bada garaia”. Uzta garaia da Gipuzkoako erresidentzietan; etorriko da, lortuko dugu.

Mila esker prozesu honetan guztian bidelagun zareten Zumaia herriar, eragile sozial, talde feminista, pentsionista eta gazteei. ■■■

ERREMATEA




JOSE CASTILLO

Pentsiodunen eredua

Europako funtsak jasotzeko azken akordioak dio pentsioaren zenbatekoaren kalkulua 35 urtera arte igo daitekeela. Informazioak ez dira oso argiak oraingoz, baina hori da Europatik “leheneratzeko” dirua jasotzearen prezio gordina. Bada arazo honetan belaunaldi ezberdinen arteko borroka ikusi nahi duenik, hots, gure zaharrek “sekulako” bizitza botatzeko gazte gaixoei jasangaitza den pentsio sistema sostengatu behar dutela, beren lan gogorraren barruan. Ikuspegi horren aurka, gogoratu beharko genuke pentsioak historikoki antolatutako langile mugimenduaren fruituak direla. Justuki, langile klasearen bizitza gogorra zerbait arintzeko langileek estatu kapitalistari irabazitako konkista bat. Ongi dakite astelehenero Zumaian, Euskal Herrian eta Estatuko beste hainbat herritan biltzen diren pentsiodunek.

Beren aldarria izan zitekeen kolektiboari eragiten dien arazo baten inguruko protesta hutsa. Alabaina, pentsiodun ugari ari dira beren erretiroaren denbora militantzia lan honi eskaintzen, egungo gazte langileek etorkizun duinagoa izan dezaten. Horregatik deitzen diete gazteei beraiekin batera borroka daitezen, horregatik da beren aldarria pentsio sistema iraunkor baten aldekoa. ■■■





Dantzarako gonbidapena abenduan

Emanaldi xumeagoez gain, aldian-aldian, bizpahiru urtetik behin, jendaurreko emanaldi handia egiten du Astindu dantza taldeak. Abenduaren 18an egingo dute aurtengoa: Zumaiaiko Musika Bandarekin elkarlanean, 'Mamma mia! Gure musikala' emanaldia eskainiko diete zumaiarrei.

Testua: **Maria Maya Manterola**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.



Erritmo gogoraerrazak, ezkata distiratsuak eta pop doinu itsaskorrak. Lau hamarkada igaro arren, ezaguna zaigu oraindik ere ABBA musika taldea. *Mamma mia!* musikala hautatu dute aurtengoan Astindu dantza taldeko kideek bizpahiru urtean behin egiten duten emanaldi handirako. Dena den, emanaldia moldatu eta “herrira ekarri” dute. *Mamma Mia! Gure musikala* izenburupean, abenduaren 18an izango da musika, dantza eta antzerkia uztartuko dituen ikuskizuna. Bi saio izango dira Aitzuri pilotalekuan, 18:00etan eta 20:30ean, eta bietarako sarrerak abenduaren 4tik aurrera izango dira salgai turism bulegoan, 8 eurotan helduentzako, eta 4 eurotan haurrentzat.

Abenduan estreinaldia izanagatik, urtarrilean hasi ziren ideari bueltaka. “Urteko programazioa aurkezten da urtean behin egiten den bazkideen batzarrean. Jendeak proposamenak egiten ditu. Ideia da bizpahiru urtetik behin zerbait inportantea egitea herriari begira, eta aurren, gainera, hamar urte dira Astindu sortu zela. Batzar batean atera zen ideia hau. Musika alaia da, oso ezaguna... Jendea erakartzeko ezaguna izan behar dela uste dugu, eta aproposa da, nire ustez”, azaldu du prozesuaren abiapuntua Mila Bakedano Astinduko kideak.

Hasierako ideia xume hartatik puztu eta puztu egin da proiektua. Rock talde batekin egitea zen lehen asmoa, baina azkenean, ZUMB Zumaiako Udaleko Musika Bandarekin egingo dute. Joxe Mari Azkue Bandako zuzendariak ondo gogoan du proposamena jaso zuen eguna: “Bilera batean elkartu ginela gogoratzen naiz. Milak esan zidan ideia bat zeukala eta gero komentatuko zidala, eta nire

Ehun lagun inguruk hartuko dute parte ikuskizun honetan.



Pavis Beirasek sortutako koreografiak dantzatzeko dituzte Astinduko lagunek.

DANTZA ETA DANTZA ARTEAN, PIEZAK NOLABAIT JOSTEKO, ANTZERKIA EGINGO DUTE ASTINDUKOEK

IA 100 PERTSONA IZANGO DIRA EMANALDI HANDIAREN EGUNEAN AITZURI PILOTALEKUAN

golkorako pentsatu nuen... 'Ea zerekin datorkidan orain!'. Hortxe hasi ginen. Bandan esan nuen zein zen proposamena eta denak hartu zuten pozik”.

Aste Santuaren bueltan hasi ziren entseguen. Pavis Beiras da koreografoa, 2013ko Kabareteko 2019ko Queenen inguruko emanaldiko bera. “Aspaldian esan genion, eta bera pozik. Horrelako lanak egiten ditu Bilboko Kontserbatorioan, besteak beste. Gu 50 inguru gara, eta lan handia da... Ederra oilategia!”, aitortu nahi izan du Beirasen lana Bakedanok.

Halako emanaldien bidez, herrira gerturatzen da dantza taldea. Bakedanok azaldu du jende berria hasi dela taldean, eta bazkide ere egin direla batzuk: “Nahi baduzu bazkide egin zaitezke, eta, bestela, izena eman eta diru bat ordaindu behar duzu. Batzuk badaude horrelakoetan bakarrik parte hartzen dutenak. Queenen ere bai”.

Mamma mia, Queenen ondotik

Musikal honetan dituzte orain indarrak jarrita, baina badute arantzatxo bat: Queen taldearen inguruko emanaldia errepikatzeke asmoa agertu dute Astinduko kideek. “Teknikoki ez zen guk nahi bezala atera. Dantza eta dantza arteko tartetean bideoak proiektatu behar genituen, baina azkenengo momentuan ordenagailua izeratu egin zen, eta bideoirik gabe geratu ginen”, dio.

Aurreko emanaldiekin alderatuta, badu berrikuntza bat aurtengoak. Dantza eta dantza artean, piezak nolabait josteko, antzerkia egingo baitute Astinduko kide batzuek. Mila Bakedano izango da horietako bat: “Hasiberriak gara horretan. Nik ez dut inoiz antzerkia egin, ezta eskolan ere. Ni apuntatu nintzen, eta gero damutu. Zeinek esan ote dit niri hori egitera ausartzeko?”. Dena den, “egunean bertan ateratzen dena ateratzen dela”, ederra izaten da, Bakedanoren ustez.



Abestien moldaketak egiten hasi zenean egin zion galdera berbera Azkuek bere buruari. Izan ere, dantzatu behar duten bertsioa behar izaten dute entseguetarako, ez originala. Eta Azkuek egin dituzten abestietako moldaketa horiek guztiak: “Partiturak bilatzen hasi ginen, baina ez zegoen bat bera ere. Musika guztia moldatu behar izan dut, ia hiru hilabeteko lana izan da. Abestiak aukeratu zituzten, eta zer zegoen begiratu nuen. Dantzarako behar zirenekin ez zeukaten zerikusirik. Beraiek esaten zidaten zer abesti entseatu behar zituzten hurrengo hilabetea, eta nik prestatzen nituen abesti horiek. Irailaren amaierarako prest zeuden abesti guztiak. Hamar dira guztira; bederatzi dantzatuko dituzte”.

Ia ehun zumaia taula gainean

Azkueren hitzetan, “makroproiektua” bilakatu da ikuskizuna. Ziurrenik inoiz ez zen izango hainbeste zumaia aldi berean parte hartzen duten pareko ikuskizunik. Ia ehun pertsona izango dira emanaldi handiaren egunean Aitzuri pilotalekuan jarriko duten taula gainean: 53 dantzari, 35 musikari eta lau abeslari –Jon Urbiet, Maria Martinez, Jone Urbiet eta Aitzol Ibarloza–, talde teknikoko kideez gain.

Aurreko emanaldian –Queen taldearen inguruko emanaldia eskaini zuten azkena, 2019an, Maiatza Dantzan egitasmoaren barruan– kanpoan geratu zen jende asko. Aurten bi emanaldi eskainiko dituzte, 18:00etan, lehena, eta 20:00etan, bigarrena.

Emanaldietarako gogotsu daude parte hartzaileak, baina egun handia iritsi bitartean, koreografiak prestatzen, dekoratuak egiten eta musika entseatzeko jarraituko dute.

ABBAREN itzulera

Zumaian egingo duten ikuskizunak talde suediarren itzulerarekin bat egingo du. 40 urtean disko berririk atera gabe –1981 *The Visitor* izan zen azkena–, *Voyage* diskoa plazaratu du Suediako laukoteak. Popak mundu mailan eman duen talde garrantzitsuenetakoa bat da ABBA inongo zalantzarik gabe, eta orain ia mende erdi konposatutako abestiak oraindik etengabe entzuten dira: *Dancing Queen*, *Knowing me, knowing you* edo *Chiquitita* poparen historiara pasatu dira. Diskorik ez dute atera lau hamarkada horietan, baina Benny Andersson

Astinduko kideek beraiek sortu dituzte ikuskizunerako dekoratuak.



Zumaiako Herri Eskolako gimnasioan egin dituzte entseguak.

Martinez, Jon Urbietta eta Aitzol Ibarloza.

Astindu Dantza Elkarte.

Zumaiako Udaleko Musika Banda. Zuzendaria: Josean Pascual.

Koreografoa: Pavis Beiras.

Antzerki zuzendaria: Esti Curiel.

Musika zuzendaria: Joxe Mari Azkue. ■■■

eta Björn Ulvaeus konpositoreak ez dira geldirik egon – Anni-Frid Lyngstad eta Agnetha Fältskog abeslariak dira laukotearen beste bi kideak – eta ABBA marka erabiliaz *Mamma mia!* bezalako musikal arrakastatsuak sortu dituzte. Orain, inork espero ez zuenean, ABBA itzuli da disko berri batekin. Hologramen bidezko bira ere egingo dute. Ez dira, ez, geldirik egotekoak suediar hauek.

FITXA

Eguna eta lekua: Abenduaren 18an, 18:00etan eta 20:30ean, Aitzurin.

Abeslariak: Jone Urbietta, Maria

Zumaian bertan eguzki energia sortzera goaz. **Izan aldaketaren parte, zatoz Egutera.**

Egin aurrematrikula:
labur.eus/egutera



egutera

ZUMAIKO ENERGIA KOOPERATIBA

EGOTETIK EGITERA



OPARITU TOKIKO INFORMAZIOA



bazkide@ukt.eus

B
BALEIKE

K
KARKARA

erlo
ERLO

MAXIXATZEN

**UROLA KOSTAKO
HITZA**

UZTARRIA

**ZARAUZKO
HITZA**

"Talde barruan ez badago giro onik, oso zaila da musika egitea"

AMAIA ALDALUR SAN PEDRO ABESBATZAKO ZUZENDARIA

Duela 30 urtetik Zumaiaiko San Pedro abesbatzari lotuta dago Amaia Aldalurren (Zumaia, 1973) jarduna. Urte horietako asko zuzendari lanetan egin ditu, eta horretan dihardu orain ere. Bere musika ibilbideaz, abesbatzak izan duen bilakaeraz eta pandemia garaian izan zituzten trabez aritu da, besteak beste.

Testua: **Amaia Urbietta Arruti**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

U billosen entseatzen du San Pedro Abesbatzak. Bertan egin dugu solasaldi hau.

San Pedro abesbatzako zuzendaria zara gaur egun. Zer ibilbide egin duzu aurretik?

12-13 urterekin hasi nuen

ibilbidea musikan, zortzigarren mailan nengoela. Lehenago ere jasotzen genituen pianoko klaseak, baina orduan kontserbatoriora bideratu nintzen. Han hasi nuen musikako ibilbide serioa.

Goi mailako pianoko ikasketak egin nituen, izatez, beraz, pianista naiz. Baina bizitzak bueltak ematen ditu, eta gogoratzen naiz nola joan nintzen hemezortzi urterekin garai hartan zuzendari zen [San Pedro abesbatzako zuzendari] Agustin Zubimendirengana, eta esan nion kantatu nahi nuela. Oso ondo gogoratzen naiz, esan zidan: "Bada, etorri". Ez dakit zer piztu zitzaidan barruan, baina bakar-bakarrik joan nintzen.

Orduan nolako zen abesbatza?

Parrokiako abesbatza zen, mezetan abesten zuten askotan, baina, tira, nik abestu besterik ez nuen nahi. Hasi nintzen kantuan, eta musikan oso sartuta nengoela, 2001. urtean, abesbatza hartu nuen lehen aldiz, 28 urterekin. Gero etenaldia izan nuen, eta 2008an berriz hasi nintzen zuzentzen. Gerora, gehiago sartzen joan naiz, eta

2015ean Hondarribiko Xatz Eskifaia zuzentzen hasi nintzen. Horrez gain, 2006tik Hernaniko musika eskolan egiten dut lan, eta 2017an hango abesbatzak ere hartu nituen, eskolako abesbatza guztiak.

Taldeak zuzentzen baduzu eskarmentua, orduan.

Bai, tira, eskarmentua ez dakit daukadan, batzuetan eskarmentua hartu egiten dut, galanta, gainera. Abesbatzen adar guztiak eramaten ditut, jubilatuen izan ezik. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko batzordekide izaten ere badaramatzat urte batzuk, eta aurtengo irailaz geroztik lehendakari naiz.

Zer funtzio dauka Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak?

Oso garrantzitsua da Gipuzkoan, baita Euskal Herrian eta hortik kanpo ere. Urte asko daramatza martxan Federazioak eta oso ondo funtzionatzen du. Mugimendu handia dago: 110 abesbatza ditugu federatuak, askotarikoak. Helduak, haurrak, jubilatuen..., badauka bere pisua. Antolatzen dira helduen topaketak, haurrenak, Ereintza Gabon Kanten Jaialdia ere antolatzen da... Lana nahi adina dago.

Zumaiara itzulita, zer bilakaera izan du San Pedro abesbatzak urte hauetan?

Ez dakit bilakaera handia izan duen. Nik abesbatzako kideei erakutsi nahi izan diet





ikasteko eta hobetzeko gogo. Abesbatza xumea ginen eta orain ere hori izaten jarraitzen dugu, gure proiektuekin. Baina helburua da taldea hobekuntzarako bidean egotea. Niretzat hori da garrantzitsua. Hori eta musika egitea, noski; teknika gehiagorekin edo gutxiagorekin. Horren barruan, lehena da disfrutatzea eta giza talde on bat osatzea. Talde barruan ez badago giro onik, musika egitea oso zaila da.

Bilakaera horretan, errepertorio aldaketa egon al da?

Hasieran abesbatzak eduki zuen aldaketa nagusia mezen kontua izan zen. Urtean meza asko kantatzen genituen lehen, eta hori murriztu egin genuen. Harrezkeroztik, zortzi meza kantatzen ditugu urtean.

Elizatik atera ginen, eta musika eskolan entseatzeri pasatu ginen. Pixka bat baneukan hortik ateratzeko beharra; izan ere, badago jendea abesbatzak elizarekin zuen loturak atzerakada ematen diona. Nik uste dut gaur egun gaindituta dagoela hori. Eduki dut abesbatzan oso jende makarra kantuan, eta horiek ere joaten dira meza abestera, baina ez dira joaten mezetara. Beste batzuk badira elizkoiak, baina jende gehiena abestera joaten da. Elizkizunetan parte hartzen dugu San Pedro egunean, Eguberri egunean edo Elizarentzat garrantzitsuak diren bestelako egunetan. Horrelakoetan, guk ere baliatzen dugu zerbait potentia prestatzeko, musika erlijiosoa oso ederra eta interesgarria delako.

Zer profiletako jendea duzue abesbatzan?

Denetik daukagu. Esango nuke % 25ek badakitela musika, badakite partiturak irakurtzen, baina beste batzuek ez. Urteen poderioz ikasi dute,

batzuk intuizio handiarekin, eta asko daude ahots klaseak jasotzera joaten direnak beraien kabuz.

Profil oso desberdinak ditugu. Adinari dagokionez, 50 urtetik gorakoak dira asko. Batzuk jubilatuta ere badaude, baina gaur egungo jubilatutak oso gazteak eta oso aktiboak dira; hori lehendik hona asko aldatu da. Jendeak lan handia egiten du, animatzen da batzordean parte hartzera eta ikasteko grina dute.

Talde aktiboa da eta egoera onean dago, baina pandemiak izango zuen eraginak beldurra eman zidan. Halere, pandemiak taldea sendotu egin duela esango nuke. Ez genion kantatzeari utzi. Ez ziguten utzi entseatzen, baina berriz ere elkartu garenean, pertsona bakarrak laga dio etortzeari.

Nola bizi izan zenuten pandemiaren eragina?

Pandemia garaian erreferentzialak ziren abesbatzek bakarrik zeukaten entseatu ahal izateko baimena. Horiek dira Eusko Jaurlaritzatik dirulaguntza zuzena jasotzen dutenak. Horregatik, Gipuzkoan eta Euskal Herrian bazeuden abesbatza batzuk entseatzeko aukera zutenak, baina ez zen gure kasua. Borroka handia egin genuen horren harira.

Musika eskolako abesbatzekin entseatzeari ez nion laga, hezkuntzaren barruan zeudelako. Kontraesan handia zen, eta asko sufritu genuen. *Online* ere ahalegindu ginen entseatzen, baina nik oso garbi neukan hori ez zela egokia gure abesbatzarentzat. Aurrerago, beste zirrikitu batzuk topatu genituen zerbait egin ahal izateko. Kutsu profesionala emanez gero baimena lortu genezakeen kontzertua antolatzeko, eta kantatu ahal izateko trikimailuekin ibili ginen. Horrela



"IKASTEKO ETA HOBETZEKO GOGOA ERAKUTSI NAHI IZAN DIET NIK ABESBATZAKO KIDEEI"

"BORROKA ASKO EGIN BEHAR IZAN DUGU, BAINA TALDEA OSO SENDO AZALDU DA; OSO POLITA IZAN DA"

"IKASI DUT KANTU BIDEZ ADIERAZTEN DENA OSO ZAILA DELA BESTE MODU BATERA ADIERAZTEA"

antolatu ahal izan genuen kontzertua lehengo apirilean.

Borroka asko egin behar izan dugu, baina taldea oso sendo azaldu da, eta hori oso polita izan da. Neurriei begira, Andra Mari abesbatzan eta

orkestraren batean kutsatze potenteak egon zirenez, baztertuak izan gara. Baina, tira, bagoaz aurrera.

Orain zein da egoera?

Kontzertuak maskararekin ematen jarraitzen dugu, espazio itxietan baldin badira. Espero dut kalean egiten ditugun emanaldiak eta kantujirak maskararik gabe eman ahal izatea, baina barrualdean bada, maskararekin abestu behar dugu. Ia guztiok daukagu txertoa hartuta, baina arauak arau dira eta bete egin behar ditugu.

Zer erakutsi dizu hainbeste urtetan lan honetan jarduteak?

Ikasketa prozesua ez dela inoiz bukatzen; beti dagoela zer ikasi, ibilbidea oso luzea dela eta ez dela bukatzen. Ikasi dut, ahal baldin bada, inguratu behar duzula zuk baino askoz gehiago dakien jendeaz, haiengandik ikasteko eta hori gero zure abesbatzako kideei transmititzeko.

Horrez gain, ikasi dut kantu bidez adierazten dena oso zaila dela beste modu batera adieraztea, barru-barrutik ateratzen delako eta emozio aldetik ondo egon behar delako. Zu oso triste baldin bazaude, edo gaixorik, ez zaizu ateratzen kantua. Ongi egon behar duzu kantatu ahal izateko eta emateko; kantatzea ematea baita.

Zer moduz ikusten duzu transmisioaren kontua? Gazte jendea erakartzen al du abesbatzak?

Oso gai delikatuak da hori. Musika eskolan badituz ikasle gaztetxoak, nirekin hasten dira abesbatzan eta hazten joaten dira, baina badaude etapa oso delikatuak. Zenbait etapatan, gazteek taldean funtzionatzen dute. Kirolean taldeak osatzea ohikoa da, baina musikan gehiago kostatzen da hori mantentzea. Piramidea asko estutzen da garai horretan.

Ateak irekita daude, noski, baina normalean ez ditugu erakartzen 18-20 urtekoak, guk ere adin profil bat daukagu. Baina ez nau gehiegi kezkatzen horrek, harrobia egitea oso zaila baita. Urte asko daramatzat honetan, eta txikitan hasten direnen artean, % 5 edo igarotzen da goian abestera. Ni pozik geratzen naiz beraiek ahots osasuntsua baldin badute, ondo erabiltzen badute eztarria, garrasi egiten ez badute eta horren inguruko gutxieneko ikasketa batekin joaten badira.

Gero, gutxi batzuei sortzen zaie musikarako grina hori, mantentzen dute eta hor jarraitzen dute. Ehuneko txikia da, baina nik onartuta daukat hori horrela dela. Musika egiten dugunok gutxiengoa gara. ■■■

"Galdona: abizena, burdindegia eta abar amaigabea"

Maria Isabel eta Maria Luisa Galdona, burdindegiko saltzaileak

Azaroaren 30ean itxi zituen ateak Galdona burdindegia Zubitziki parean zuen dendak, mende erdiz martxan egon ondoren. Zumaiako saltoki historiko honen inguruko oroitzapenak partekatu dituzte Maria Isabel eta Maria Luisa Galdona ahizpek.

Testua: **Jabi Gonzalez Toston**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Arraroa egingo da egunak joan eta egunak etorri Mendaro Marinela kaleko lehen zenbakia pertsiana jaitsita ikustea. Azken 50 urteotan, igandeetan, jaiegunetan eta oporrak hartutakoan baino ez du itxi Galdona familiak Patxita Etxezarreta kalearekin izkina egiten duen denda, baina azaroa amaitu zenetik ez dute zabaldu, eta epe laburrean, behintzat, ez dute berriro egingo.

1970ean estreinatu zuten, hasieran etxetresna elektrikoak saltzeko asmotan. Pare bat hamarkada geroago, ordea, burdindegi izatera pasatu zen; familiak ordura arte Erribera kalean (gaur egun Titare mertzeria dagoen tokian) izan zuen burdindegia itxi eta negozioa lekualdatzea erabaki ondoren.

Enpresa Jose Ramon Galdonak sortu zuen, baina haren alaba Maria Isabel eta Maria Luisa Galdona ahizpek egin dute denbora gehien dendan lanean. Lehenaren erretiroagatik erabaki dute, hain justu, denda ixtea. Familia enpresa da Galdona burdindegia, senitarteko guztiak aritu dira bertan lanean, noizbait. Maria Isabel Galdonari erreleboa emango dionik ez dago, ordea; horregatik, Jose Maria Korta industrialdean duten biltegi handia mantenduko dute soilik. Lekualdatuta dago hori ere; izan ere, lehen, Juan Belmonte kalean baitzuen familiak biltegia.

Burdindegia zabalik izan zen azken asteetan, erosketaren bat egitera gerturatutako bezeroetako askok hutsunea nabaritu zela esan zieten bi ahizpei: "Herritarrak denda beti zabalik aurkitzera ohitu dira, eta itxi egingo genuela jakitean, sorpresa hartu zuten. Penaz hitz egin digute orokorrean", aitortu dute.

Oinarrizko beharretarako erreferentzia puntua izan da Galdona zumaiarrentzat, eskaintza zabala eduki dute beti: burdindegietan ohikoak diren iltze, broka eta tirafondoez gain, sukalderako tresna edota momentuan egindako giltzen kopiak saldu dituzte, besteak beste. Maria Isabel Galdonak oroitzen du "arrantzarako kainaberak" ere saldu izan dituztela. Ahizpa gaztearen arabera, herri txikietako ohitura da hori: "Lehen, burdindegietara jotzen zen edozer gauza erosteko, eta Galdonak identitate hori izan du. Dendara sartu eta denetik galdetu digute, ea orraziak saltzen ditugun, burko azalak, ur botilak...".

Produktu guztiek ez dute harrera bera izan, noski. Erosi izan dituzte berehala agortuko zirela pentsatu baina azkenean kostata saldu dituztenak. Halaber, luzaroan inork nahi ez eta egun batetik bestera 3 edo 4 bider eskatutakorik ere izan da. Denda ixtear zirela saldu zuten teontzi batekin gertatu zitzaien, esaterako. "Bost hilabete egin zituen teontziak eskaparatean, eta saldu eta ordubetera, beste pertsona bat etorri



irrimarra



zitzaigun teontziaz galdezka”, dio Maria Luisa Galdonak.

Modernizazioa

Aukerako produktuak ehunka izan arren, beti izan dituzte denak lokalizatuta, bakar batek ere ez die ihes egin. Duela lau bat urte informatizatu zuten guztia eta sekulako lana eman zien, dendan lanean aritu diren 28 urteetan egin behar izan duten “aldaketarik esanguratsuena”, bi ahizpen hitzetan. Bide batez, produktueta batzuk erretiratzeko ere aprobeztatu zuten; baita lan egiteko modua aldatzeko ere, “erraztu egin genuen” diote. “Urte luzez eskura eman izan genien bezeroei behar zutena. Beraiek eskatu eta guk eman. Azken urteetan, ordea, hori aldatu eta jendeari produktuak hartu eta ikusteko aukera handiagoa eman genion. Dena den, egia da askok galdetzen jarraitzen dutela”, azaldu dute.

Internet bidezko salmentaren gorakada ere igarri dute Galdonan. Maria Luisa Galdonaren arabera, “orain edozer gauza eros dezakezu Amazonen, dena dago, eta etxeko ateraino eramaten dizute, gainera”. Belaunaldi gazteen artean errotoago dagoen ohitura da Sarean erosteara; dena den, ahizpa zaharrenak gaineratu du gazte asko joan zaizkiela beti, “giltzen kopiak egitera, batez ere”.

Pandemiak ere buru hauste latzak ekarri dizkie. Denda hainbat hilabetez itxita izan ondoren, osasun araudietara egokitu behar izan zuten berriro zabaltzeko aukera izan zutenean: bezeroei eskularruak eta maskara jartzea eskatu zieten dendara sartutakoan, pilaketak saihesteko kanpoan itxarotea, eta korridoreak zeharkatu eta sarrera eta irteera norabideak arautzeko zorua

atundu zuten. Hala ere, azken lanegunera arte mantendu dituzten desinfekzio lanak egin zaizkie neketsuenak; izan ere, eguadiako atsedenaldian eta arratsaldean, denda goitik behera garbitu behar izaten zuten eta are gehiago luzatzen zitzaaien eguneko lan jarduna.

Gainera, konfinamenduko unerik gogorrenetan herriko denda itxita egon zen, baina Korta industrialdeko biltegiak martxan jarraitu zuen, industria hornidurarako. Banatzen dituzten produktueta batzuk herriko denda

Maria Isabel Galdona

- **Adina:** 66 urte.
- **Ikasketak:** Batxilergo laborala.
- **Lanbidea:** Burdindegiko saltzailea.
- **Burdindegiko saltzailea ez banintz...**
Hizkuntzekin lotutako zerbait, beti izan ditut gustuko, ingelesa, batez ere.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...**
Zinemara joatea.

Maria Luisa Galdona

- **Adina:** 57 urte.
- **Ikasketak:** BBB (Balioanizdun Batxilergo Bateratua) bigarren ikasturtera arte.
- **Lanbidea:** Burdindegiko saltzailea.
- **Burdindegiko saltzailea ez banintz...**
Musikari lotutako zerbait.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...**
Ibiltzea, mendi bueltaren bat ematea.

zeuzkatenez, bertara joan behar izan zuen, tarteka, horretarako ardura hartu zuen Maria Luisa Galdonak.

Aro berria

Hain justu, herritik at dagoen industrialdeko pabilioi horretan jarraituko du aurrerantzean bi ahizpetan gazteenak; izan ere, laneko urte batzuk geratzen zaizkio oraindik erretiroa hartzeko. Zumaiarrek ere bertan izango dute aukera etxerako behar dituzten burdingintza produktuak erosteko, abisua igorri diete, eta Maria Luisa Galdonak berak dioenez, “batzuek adierazi digute etorriko direla”. Bera gogotsu dago ohitura berrietara egokitu eta bezeroak lantoki berrian hartzen jarraitzeko.


Maria Isabel Galdonak, berriz, dituen hiru bilobei eskaini nahi die orain lehen lanagatik eskaini ezin zien denbora. Hortik aurrera, ez daki zer egingo duen zehazki, baina argi du geldirik ez duela egon nahi. Era berean, badaki bezeroekiko harremanaren falta nabaritutako duela. ■■■



Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali abenduaren 20a baino lehen.

Saria: TIPITAKIN bi lagunen-tzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Iraileko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 17. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Lide Guridi** bazkidea izan da irabazlea.



Zentzuz erosi.
Ondo informatu zaitez. Ezagutu zure eskubideak.
Baztertu estereotipoak.



Zeu zara zure *influencer* onena.
#KontsumitzenJakin

Olentzero existitzen al da?



MIREIA CENTENO
PSIKOLOGOA

7 urtetik aurrera, haurrek pentsamendu abstraktua garatzen dute, lehen ez bezala, logika eta arrazonamendua pentsamendu mota honetara zabaltzen da. Horrek esan nahi du zailago izango dela magian sinestea adin honetatik aurrera, eta zаланtzan jartzen hasiko direla Olentzerorena eta Perez sagutxoarena bezalako ipuin eta istorioak.

Orduan, zer esan behar diegu galdetzen dutenean? Egia esatea komeni da? Jarraitu al dezakegu istorioa apaintzen? Nola esan galdetzen dutenean?

Aukera ezberdinak ditugu eta aukera bakoitzak bere ondorio eta xehetasunak ditu:

Magiarekin jarraitzeko aukera: bai existitzen dira, baina ez dute denbora eta gaitasunik etxe guztietara ailegatzeko; orduan, gurasoei eskatzen diete opariak banatzeko, horrela haur guztiek zerbait izateko.

Magiarekin jarraitu erdizka: garai batean etortzen zirela, baina urteak pasatu eta erregeak ere hil egin direla;

beraz, tradizioekin jarraitzeko hau ospatzen dugula.

Egia esan: erlijioen gauzak direla eta gabonak ospatzen ditugunez, hau ere ospakizunaren barruan sartzen dela.

Galdetu eta zаланtzan utzi: zuk zer uste duzu? Zein da zure egia?

Aukera horiek guztiak kontuan izanda, haurren erreakzioa ezberdina izan daiteke, baina kasu guztietan, azalpen bat ematea komeni da:

-Onartzen du edo onartzen duela dirudi: "Maitea, ikusten dut edo iruditzen zait lasai zaudela orain egia dakizula. Edo agian lasai zaudela dirudi, baina beste zerbait sentitzen duzu". Gero esplikatu zergatik erabaki zenuen sinesmen edo tradizio horri jarraitzea.

-Pena handiz bizitzen du: "Maitea, ikusten dut edo

iruditzen zait pena handia duzula orain egia dakizula. Agian ez zeunden prest oraindik egia hori jakiteko eta nahiago zenuen egia izan balitz". Gero esplikatu zergatik erabaki zenuen sinesmen edo tradizio horri jarraitzea.

-Haserretu egiten da traizio moduan bizitzen duelako:

"Maitea, ikusten dut edo iruditzen zait haserre zaudela. Agian ez zenuen espero hasieratik nik egia ez esatea, eta orain amorratuta zaudе horregatik. Nahiago zenuen hasieratik dena jakin". Gero esplikatu zergatik erabaki zenuen sinesmen edo tradizio horri jarraitzea.

Kasu guztietan, kontuan izan haurrari sentimendu ezberdinak pizten zaizkiola eta ezer gertatu ez balitz bezala egiteak emozio horiek gutxiestea dakarrela.

Batzuetan familia batzuek erabakitzen dute txikitatik egia esatea. Eta beste aukera bat da. Horrelako kasuetan, kontuan izan agian haurra frustratu daitekeela berak ez zuelako egia jakin nahi hasieratik eta hori ere kudeatu egin beharko dugu. ■

**UMEEK PENTSAMENDU
ABSTRAKTUA
GARATZEN DUTE 7
URTETIK AURRERA**



Hamaika ikustekoak

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.



Sudokua

Egutegiko azken hila abendua da. Lotazila edo neguila ere esaten zaio. Bete itzazu hutsuneak abendua hitza osatzen duten hizkiez (A, B, E, N, D eta U). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

	E	B			N
	U				
		D		A	
	A		U		
				B	
A			E	D	



Bete itzazu hutsuneak argindarraren domino zati honek zentzua izan dezan.


DOMINOAN

Mezua

Marrazkitxook ezkutatzen duten esaera ezin hobeto dihoakio mutiko honi. Jarri marrazki bakoitzaren azpian bere hizkia eta osatu esaera. Erabili irudi-alfabetoa.



Bide batez, irudia margotu.



ALFABETOA



Itzala



Ez dakigu Aita Noelen laguntzaileetako bat den, ala Maripurtzil ote den, ipotxez mozorrotuta. Nolanahi dela ere, Olentzerori opari batzuk ostuta alde egin du. Ikusten ari zaren itzal horietatik bakarra da zuzena. Zein da?

Bide batez, margotu ezazu zure gustura.



Engainariak

Zazpi txatal hauetatik hiru ondoko irudi nagusitik hartuta daude eta beste laurak, berriz, engainariak dira. Bereiz itzazu.



Soluzioak ikusteko: www.plazanbazan.eus/

PUBLIZITATEA

7
MARES

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES izotzuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09

a3 diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52

Aita Mari
JATETXEA ZUMAIA

☎ 679 10 31 67
📍 Juan de Zigarán, 1 Zumaia
@aitamarijatefexa@gmail.com

f t i

AIZPURUA
LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69

AL-ANON

Alkoholiko enbide eta lagunen elkarteak
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

☎ 696 72 61 88
943-14 32 61

Amama
taberna

tel. 943-57 46 51
amamataverna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe - Hariz Klinika

Arantzabide, 3 beheak • Zumaia
☎ 943-54 35 70 • ☎ 688 73 38 56

OKINDEGIA
Arkupe

Nagusia, 2 - tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OCI-EDER

ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Arantzabide, 16 - Tel. 943-50 91 69

BOSCH Service
Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

AXA

943-53 03 97
688 71 26 21
Kantauri 2, beheak
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es

finés
francés
euskara
ingelesez
español
katalan
sueoi: bas
galea finés
francés anglés
katalan-francés
castellano finés
inglés bas: katalan

bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net

Basadi albaitaritza

Albaitaria
Itzi Garmendia

Basadi, 7, beheak - tel. 943-14 33 10
velernaria@basadilnivet.com
www.basadilnivet.com

Geluz: 11-13 / Arantzabide: 15-19-30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxia
Larriak: 605 72 87 07 Elbez etxeko zerbitzua

ASESORIA ARIN

- Abokatua
- Kontabilitateak, gestoria, zergak eta laborala
- Inmobiliaria gestioa
- Komunitate administrazioa

Gesalaga kalea, 22 beheak • ZESTOA
Tel./Fax-a: 943-89 70 99 ■ asesoriarin@asesoriarin.com



Ingurune digitalean burujabe?

Oso azkar gertatzen ari den iraultza teknologiko baten erdian gaude eta ingurune digitalak gero eta pisu handiagoa hartu du gure egunerokoan. Interneteko sarera konektatutako mundu batean bizi gara, baina ekonomia digitalaren atzean dauden enpresa erraldioen estrategiez eta interesez ez gara jabetzen, eskaintzen diguten ingurune digitala neutroa dela sinestarazi digutelako. Doako erreminta digital liluragarriak gure burujabetzaren truke. Sare sozialak, aplikazioak eta uneoro Internetera konektatutako hamaika gailu, Googleri edota Facebooki gure egunerokoan egiten dugun ekingtza oro behatzeko eta erregistratzeko eskubidea ematearen ordainetan. Gure ezjakintasunaz baliatzen dira, gutaz dena jakiteko. Ispiluaren bestaldetik begira daukagu orakulua.

Eta berdin edo okerrago gertatzen ari da erakundeekin. Ezjakintasunagatik edo estrategia propio ezagatik, behin eta berriro bideratzen gaituzte erraldoi teknologikoen atzaparretara. Etsigarria da ikustea nola ari diren erakunde publikoak sistematikoki Instagram, Facebook edo Google-ren erabilera sustatzen, adibidez, enpresa

Testua: **Gorka Zabaleta.**
Argazkiak: **Arnaitz Rubio**
Aprea.



Josu Fdez. de Arroiabe,
Zubiri-Manteo ikastetxe
IKT irakaslea.

txikiak ingurune digitalean ahalduztzeko estrategietan; edo nola bultzatzen dituzten herritarrak Facebooken edo Twitterren kontu bat zabaltzera informazioa edo zerbitzuak jasotzeko. Ez gara jabetzen, ez dira jabetzen, estrategia akritiko horrek erraldoi teknologikoen menpekoago bihurtzen gaituela.

Alternatibak eraikitzea ez da erraza, baina jarrera kritikoa piztea da lehen urratsa. Gutxienez, jakin dezagun zer dagoen jokoan. Helburu horrekin antolatu du Baleike Kultur Elkartek burujabetza teknologikoaren inguruko hitzaldia, herrian bertan dauzkagun lau adituren eskutik. Azaroaren 24ko saioan esandako ideia nagusiak jaso ditugu ondorengo lerroetan.

Josu Fernandez de Arroiabe

Burujabetza teknologikoaren garrantzia hezkuntzan

Ikasketaz ingeniari informatikoa da Josu Fernandez de Arroiabe, baina ederki ezagutzen du hezkuntza mundua, lanbide heziketan ari baita lanean, Donostiako Zubiri Manteo ikastetxean. Teknologia digitalak irakaskuntzan integratzeko garaian, estrategia propioaren falta sumatzen du. Estrategiarik egon ez denez, erraldoi teknologiak jabetu dira hezkuntzaren esparruaz. Eskoletako digitalizazio prozesua nola izan den horrela laburbildu du: “Duela 20-30 urte hezkuntza sistematik pasa ginenok Microsoft erabiltzen ikasi genuen, dena erdaraz eta, eskola amaitzean,

bide horri alternatibak bilatzeko inolako jarrerarik gabe. Azken hamar-kadan konpetentzia sortu zaio Microsofti, Google sartu da indar handiz, Google Suite for education erreminta sistema osoa eskainiz. Ikastetxeentzat oso eskaintza tentagarria da, dena baita Googleren kontura, eta nabigatzailea nahikoa da erreminta guztiak erabili ahal izateko. Azken urratsean, 12 urtetik gorako ikasle guztiei ordenagailu bana ziurtatu die hezkuntza sistemak, baina hor ere Googlek berea sartu du, Chromebook izeneko, bere erremintekin eta sistema itxiarekin”.

Bide horretatik multinazionalen esku dago hezkuntza, horrek dituen arriskuekin eta ondorio kaltegarrieekin. Batzuk azpimarratu ditu Fernandez de Arroiabek: “Pribatutasunari dagokionez, datuak dira enpresa handi horien petrolio. Negozioa ikusi dute hezkuntzan. Chromebookarekin, adibidez, gure ikasleen datuak biltzen ari da Google. Enpresa handi horiekiko menpekotasuna sortzen du eta gizartearen eragiteko indar handia dute, ez dira teknologia neutralak. Gaitasun digitala mugatzen dute, kontzientzia behar da zer beste aukerarik badagoen jakiteko. Euskarak ere ez du lehentasunezko lekuri erreminta horietan eta, nola jokatu dute gazteek eskolatik ateratzen direnean? Mobila, nabigatzailea edota ordenagailua euskaraz konfiguratuko dute? Azkenik, zaharkitze programatua izaten dute gailu horiek. Chromebookaren sistema eragileak, adibidez, bost urteko bizitza dauka, eta ezin zaio beste sistema bat ezarri”.

Horren guztiaren aurrean, han-hemenka software librearen bidetik sortu diren esperientziak aipatu ditu Fernandez de Arroiabek. “Alternatibak badaude, baina ardura nagusia erakunde publikoek dute. Kontzientzia falta handia dago, estrategia bat behar da. Noski, software librearekin dena zeuk eraiki behar duzu; Microsoftek edo Google dena egina ematen dizute”. Baina zeren ordainetan?

Olatz Arregi

Adimen artifizialak badaki euskaraz?

Adimen artifizialak hizkuntzen esparruan zer aukera eskaintzen dituen ikertzen dihardu Olatz Arregi informatika doktorea, batik bat, teknologia berri hauek eskaintzen dituzten aukerak euskarak ere balia ditzan.

Makinek giza adimena imitatzeke duten gaitasunari deitzen zaio adimen artifiziala. Datu bolumen handiak eskainiz gero, makinak gai dira kontzeptuak bereizten ikasteko, irudi batean etxe bat edo txakur bat ageri den bereizteko, xake partida bat jokatzeko, hizkuntzak ulertzeko eta itzultzeko edo kalkulu matematiko konplexuenak instant batean egiteko. Teknologia hauek hizkuntzen eremura aplikatuta, dagoeneko ohikoak dira testu zuzentzaileak, hiztegi automatikoak, itzultzaileak, transkripzio automatikoak eta antzeko zerbitzuak. Oso garatuta daude munduko hizkuntza nagusietan, pixka bat atzerago euskararen kasuan.

Zer behar da aurrerapen teknologiko horiek guztiak euskararentzat ere garatzeko? Arregik lau oinarri nabarmendu ditu: “Hasteko, euskarazko testuak eta audioak; eduki egokia eta zuzena behar du izan, emandakotik ikasten baitute makinek. Datuak ez badira onak, emaitza ere halakoa izango da, eta gero oso zaila da hori zuzentzea. Horrez gain, behar dira adituak, eta behar dira bertako enpresak tresna horiek garatzeko gai direnak. Erraldoi teknologikoek ez dute lan hori egingo, euskara txikiegia da errentagarritasun ekonomikoaren ikuspegitik. Eta behar da konputazio ahalmen handia, datu bolumen handi horiek prozesatzeko tresnak”. Eta zer falta zaigu lanak behar bezala egin ahal izateko? “Adituak eta enpresak badauzkagu, eta zenbait tresna garatu dituzte azken urteotan, itzultzaile automatikoa, esate baterako. Baina enpresa handien atzetik goaz, eta arriskua da haurrak txikitatik erdaraz ohitzen direla teknologiarekin. Gailuei erdaraz hitz egin behar zaie, oraindik euskara ez dutelako ulertzen. Ezinbestekoa da inbertsio handiak egitea aurrerapausoak egin ahal izateko. Gaztelaniarentzat, adibidez, 600 milioi euroko inbertsioa egingo dute bi urtean; katalanarentzat 13,5 milioi euro aurreikusi dituzte lau urtean; galizierarentzat 15,5 milioi euro; euskara maila apalagoan dabil, oraingoz”.

Beraz, inbertsioak behar ditu euskarak hizkuntza teknologien trena galduko ez badu. Eta ezinbestekoa da tresna horiek geuk



Olatz Arregi, UPV/EHU
Informatika fakultateko
irakaslea eta IXA Taldeko
kidea.



Igor Unanue, CTO eta S21secen sortzailea.

NORBANAKOENTZAT ERE HAMAICA ARRISKU DAUDE INGURUNE DIGITALEAN

INBERTSIOAK BEHAR DITU EUSKARAK HIZKUNTZA TEKNOLOGIEN TRENA GALDUKO EZ BADU

sortzea, Euskal Herrian. “Euskara biziko bada tresna hauek behar ditugu, horrekin nahikoa izan ez arren”, osatu du Arregik.

Igor Unanue

Datuen pribatutasuna eta segurtasuna Interneten

S21sec zibersegurtasun enpresako fundatzaileetako bat da Igor Unanue. “Gaur egun tresna digital asko erabiltzen ditugu, baina ez dakigu oso ondo zer arrisku dauden”. Ziberkrimena negozio izugarria bihurtu da, 6.000 milioi dolarreko kalteak eragingo ditu aurren, eta erasorako gero eta bide gehiago dituzte ingurune guztia Internetera konektatzen ari den neurrian. Erasoak etengabeak dira, maila guztietan. “Enpresa handiek galera handiak paira ditzakete. Adibidez, Acer enpresak (ordenagailuak-eta egiten dituzte) 50 milioi euroko erreskatea ordaindu behar izan zuen, Revil hacker taldeak ransomware motako eraso baten bitartez bere sisteman sartu, datu guztiak zifratu eta enpresaren informazioa bahitu ziolako”.

Enpresak eta erakundeak ez dira jomugan dauden bakarrak. Norbanakoentzat ere hamaika arrisku daude ingurune digitalean. Adibidea eman du Unanuek: “Anubis izena duen birus troianoa da kasu bat. Android mugikorretan instalatzen da. Guk pentsa dezakegu Bankia, Antispam edo Bitcoin aplikazioa deskargatzen ari garela, itxuraz hala delako, baina deskargatzeko

momentuan web orrialde batetik egiten du, eta ez Googlek daukan aplikazioen dendetatik. Hor dago aldea. Behin deskargatuta, gure mobilaren kontrola hartzen du”.

Erasoak milaka aurpegi izan ditzakeenez, erabiltzaile arruntentzat zenbait aholku dauzka Unanuek, arriskuak mugatzeko. “Posta elektronikoari dagokionez, ez bidali datu pertsonalik, ez erantzun inoiz kreditu txartelaren datuak, pasahitzak eta horrelako datuak eskatzen dizkigutenean. Mezuaren igoera susmagarria bada, bidali spam karpetera eta aurrerantzean hara joango da automatikoki. Interneten nabigatzerakoan, ez fidatu ezezaguna zaizun webguneaz, ez sartu legea urratzen duten webguneetan, eta ez deskargatu, instalatu edo exekutatu software susmagaririk. Erne pelikulak-eta doan deskargatzeko aukera ematen duten guneekin, hortik programa kaltegarriak sar daitezke gure ordenagailura eta gure informazio pribatua eta datu konfidentzialak lapurtu. Pasahitzen kasuan, aldiro-aldiro aldatu, eta ez errepikatu leku guztietan pasahitza berbera. Interneten badaude leku seguruak pasahitza guztiak gordetzeko; nahikoa da gune horretara sartzeko behar duzun pasahitza gogoratzearekin, beste guztiak han daukazazu. Pasahitza lapurtzeko zaila izan dadin, komeni da gutxienez zortzi hizki izatea, handiak eta txikiak, eta tartean zenbakiak eta bestelako karaktere bereziak. Saihestu behar da hiztegiko hitz bat izatea, eta oso aukera ona da esaldiak egitea.

Adibidez, “ez da erraza Asmatzen”, gogoratzeko erraza eta makinentzat asmatzeko oso zaila, esaldi bat delako. Azkenik, kontuz wifi sare publikoekin, pasahitzik eskatzen ez denetan errazagoa delako norbaitek zure datu pribatuak ikustea. Eta mugikorretan, erne jaisten ditugun aplikazioekin, erabili beti denda ofizialak”.

Josu Waliño

Txikitik handira: Zumaia eta burujabetza teknologikoa


Puntueus Fundazioko zuzendari Josu Waliñoren iritziz, estrategia digitala falta zaigu burujabetza teknologikoan urratsak egiteko. “Ingurune digitalean bizi gara, teknologia digitalaz inguratuta gaude. Edozein tokitan adimen artifiziala dago, gure datuak jasotzen ari dira eta segurtasun arazoak daude. Baina segundoro sortzen diren milioika datu eta mezu horietatik zenbat dira euskaraz? Gu ez gara inor, ez gara negozio ekonomia digitala kontrolatzen duten multinazionalentzat”. Gaur egun euskarak ingurune digitalean bizi duen egoeraren erradiografia azkarra egin du Waliñok: “Munduko hizkuntzen % 5 baino ez da erabiltzen Interneten eta euskara multzo horretan dago, hori egia da. Hortik kanpo dauden hizkuntzak heriotzara kondenatuta daudela dio Andras Kornai adituak. Baina horrek ez du esan nahi euskara ingurune digitalean indartsu dagoenik. Euskal hiztun gehienok nabigatzailea, mugikorra edota ordenagailua erdaraz dauzkagu konfiguratuta. Eskoletako Chromebook ordenagailuak erdaraz daude. Netlixek hiru pelikula baino ez ditu euskaraz...”.

Hala ere, ezintasunak ezintasun, txikitik handira urratsak egin daitezkeela adierazi nahi du Waliñok, eta hiru adibide jarri ditu. “Puntueus domeinua da adibide bat. Euskarari egiten dio erreferentzia zuzena. Gizartearen eraldaketa digitalean euskaratik eragitea da Puntueusen xedea, eta zure nortasuna ingurune digitalean zabaldu eta zaintzen duen domeinua da Puntueus. Beste adibide bat, Zumaia etorrita, zuntz optikoaren sare publikoa da. Galdetzen didatenean merezi ote duen, nik erantzuten dut ez dela prezio kontua, zerikusi zuzenagoa duela burujabetza teknologikoarekin. Esate baterako, datuen pribatutasuna bermatzearekin, ez dagoelako multinazional baten esku. Sarearen neutraltasuna ere oso garrantzitsua da, operadore pribatuek erabaki dezaketelako bezeroaren profilara arabera zerbitzu eskasagoa edo hobea eskaintzea, AEBetan gertatu den bezala. Aberatsentzat Internet azkarragoa, pobreentzat Internet motelagoa. Eta garrantzitsua da azpiegitura propioa izatea denoi bermatzeko Interneterako sarbidea. Eta azken adibidea, norbanakoraino iritsita, gure hautua da mugikorra euskaraz jartzea, mugikorren % 80 euskaraz jar daitekeelako. Lehen Hitza izeneko aplikazioarekin oso erraz egin daiteke eta horrela mezu bat bidaliko diogu Googleri, euskara ere badela hemen”. ■■■



Josu Waliño, PuntuEUS Fundazioko zuzendaria.

PUBLIZITATEA



BASUSTA
erretgia · asador
José Blázquez

Patzila Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16




EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



ERNIO
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45



Entz
Informatika

ORDENAGAILUAK · MUGIKORRAK ·
KONPONKETAK

Behoko plaza 943-14 33 95



Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30



Garroa

Carlos Cintero - Ainhoa Olazola
tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRITZUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com



Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70



Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34



ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20



INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Iriñdo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84



IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako soinu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com



IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60

Asaba zaharren baratza



TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA

@IMANOLAZKUE

Zumaiian baratzeak eta soroak ikusteko, herrigunetik gero eta gehiago urrutiratu beharra daukagu, horietako gehienak ezkutatu edo aldendu egin zaizkigulako kanpoaldera, baina apur bat irtenez gero, hor ikusiko ditugu barazkiak, patata, artoa, babarrunak... Lehen, ordea, horiez gain, baziren beste labore batzuk ere, gaur egungo begietatik bitxiak eta arrotzak egingo zaizkigunak, eta horiek ekarriko ditugu hona.

Garia

Liburu edo paper zaharretan bakarrik ez, zumaiarren ahotan ere entzun daitezke oraindik garia lantzen zeneko kontuak, eta bereziki ahotsak.eus-en. Bartolo Etxabe Olidenek¹ zioenez, garia eta artoa egiten ziren Oikiako erriberetan, hirutik bat garia, eta sanpedroetatik aurrera ebakitzen zen; Gillermo Urbietak Etxaberen hitzetan², berriz, Zumaiatik hasi eta Elorriagaraino gari pila bat egiten zen, Andikarako zabalduan, Pikoten, Endañetan..., eta uztailen sailak hori-hori egoten ziren. Angel eta Xanti Osa Arrizabalaga *Añeza* anaiek³ ere gogoan zituzten garai haiek, eta esaldi bat ere bai, azaroan ereinda noiz heltzen zen garia: “Txikia banintzan, handia banintzan, maiatzean burutan



Gure attitta, Manuel Ibarbia Aldasoro, garia mozten, Oikiako erriberetan. IBARBIA SENDIA

nintzan”; alea kentzeko, garia eguzkitan berotzen edo lehortzen eduki eta “txanketa”-ren kontra jotzen zen, dinbidanba; gero, makina batekin ere jotzen hasi ziren, “matxaka”-rekin, eta XX. mendearen hasieran, lokal bat jarri zuten propio horretarako, Patxita Etxezarreta kalean; garia jasotzeko eta jotzeko lanak auzolanean egiten zituzten, elkarri lagunduz. Gure ama Brigida Ibarbia Ugarteren hitzetan⁴, gari jotzea lan zikina

ZUMAIARREN AHOTAN ENTZUN DAITEZKE ORAINDIK GARIA LANTZEN ZENEKO KONTUAK

zen, hautsagatik, eta garia jotzeko txanketa bi harri lauza ziren; han jo eta jaulki edo libratu egiten zen alea; gero, handik garia sabaira eramaten zuten, gordetzeko. Azkenik, Jexux Iruretagoiena Lafuente *Baxakartek* ere ederki kontatzen zituen *Baleike* batean⁵ gari kontuak: hasieran igitaiarekin ebakitzen zutela eta gero segarekin, jasotzean gabikoak (bi eskukada beteko gari sortak) egiten zituztela, hasieran eskuz jotzen zutela txanketan eta gero etorri zela matxaka makina, garia jotzeko makinarekin baserriz baserri ibiltzen zirela batzuk (Agerre handia eta Lore)...

Udal paperetan ere gari arrasto ugari azaltzen dira. 1850ean, Udalak auzolana deitu zuen kaleak

konpontzeko: “acordaron que todos los moradores de esta villa y su jurisdicción menos los absolutamente pobres contribuyan con sus trabajos personales en dos días consecutivos, tan pronto como se concluya la siembra de trigo”⁶; beraz, garia ereiteko lanetan zumaia asko aritzen ziren. Baina are erreferentzia gehiago daude XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, zenbait herritarrek urtero baimena eskatzen ziotelako Udalari egun batzuetan garia jotzeko leku publikoetan, batik bat Odietako frontoian eta Madariagaren etxeko arkupean (Arlabetan, gaur egun “Arkupe” okindegia dagoen lekuan); normalean, Udalak baietz erantzuten zien, baina baldintza batzuekin: denbora jakin baterako, lurra lehen zegoen bezala uztea, txanketa ez erabiltzea...; beste batzuetan ezetz ere erantzun zuen, ordea, auzokoak kexatu egiten zirelako. Baina herrigunean ez ezik, landa eremuan ere baziren garia jotzeko leku gehiago, larrainak izenekoak, normalean leku lauak, zoru gogorrekoak edo batzuetan zorua harriz estaliak. Baxakartek ederki deskribatzen du:

“Larraña garia jotzeko lekuak izena dik. Hortik zetorrek Larraña. Lur lehor gainian dana garbi-garbi ein, harrizko losa zapal bat erdi-erdian jartzen huan eta hiru edo lau lagun artian garia losaren kontra jotzen huan. Eskuan gabikoa hartu eta zir-



Yereguitarrek garia aletzeko makinak ere egin zituzten. ZIZ.EUS, JON GUTIERREZEN BILDUMAKOIA

ti-zarta harrien kontra kristonak ematen segi. Eta danak lanian. Batzuk garia ekartzen, besteak jotzen. Garia alde batera eta lastoa bestea bota eta batzuk garia jasotzen eta besteak lastoa sapaira eamaten”⁷.

Horrelakorik ez daukagu gaur egun Zumaian, baina Oikian bada toki bat Larrain izenekoak, Epelolla baserrien aurreko erriberan, eta duela hilabete batzuk Zumaian sortu zen euskara taldeak Larraina du izena.

Gariaren beste lekukotza bat Georges Barbarin idazle frantsesak eman zigun *Jesusa Gipuzkoakoa* liburuan⁸; eleberrian kontatzen duenez, XX. mendearen hasieran, Zumaia inguruko baserrietan garia bildu berria zuten; ekaitza etorri zen, ordea, eta euriak garia erriora eramane zuten; orduan, txalupetatik “gari arrantzan” aritu ziren zumaia-rrak.

Gariarekin ari garenez, aipatu beharko ditugu garia ehotzeko lekuak, errotak, horietatik bakarra ere ez baitaigu geratzen martxan, zoritxarrez: Marearrotak edo Zubiaurrekoa, Zumaia herrigunean; Narrondokoa; eta Oikian ere baziren batzuk: Dornutegikoa, Mantzizidorrekoa, Errotagaina, Errotaberri eta Ozpidokoa.

Azkenik, poz txiki bat: zorionez garia ikusi ahal izan genuen Santiagoko erriberan, 2017an.



Garia Santiagoko erriberan, 2017an. IMANOL AZKUE

Tabakoa⁹

Beste herri batzuetan bezala, Zumaian ere landu zen Zumaian 1930eko hamarkadatik aurrera, 30 urte inguruan, batez ere Oikiako erriberetan. Desagertzeko arrazoiak, berriz, batez ere bi izan ziren: bata, baserritarrak beste lan jarduera batzuei heltzea (batez ere lantegietan); bestea, landareak kaltetzen zituen gaitza, lizun urdina izenekoa.

Oikiako baserri askoren lurretan lantzen zen tabakoa: Kondekoan, Epeolazpikoan, Pikaondon... Gure amak, Brigida Ibarbia Ugartek, ondo gogoan dauzka garai haiek, eta ahotsak eus-erako kontatu zituen¹⁰. Horrela, Konde baserrikoak arduratzen ziren Oikiako landaketez. Haziak Administrazioak ematen zizkieten, eta hazitokian jartzen zituzten; garia jasotakoan, lur haietan landatzen zituzten hazitokiko kimuak; tabako landarea handitutakoan, aizkorarekin edo igitaiarekin mozten zituzten, eta hiru hilabete inguru edukitzen zituzten lehortzen, sabaian; hosto batetik bestera alde zegoela kalitatean; nola jartzen zituzten fardoetan kirten gogorra zeukatelako eta nola eramaten zituzten trenez, Iruñera... Baserrian ondo etortzen zitzairen diru hura, negualdean, Gabonetatik udaberrira, bestelako gutxi zegotelako...



Lorenzo Manterola tabako landare artean, Kondekoa baserriaren ondoan. JAVIER CARBALLOK UTZIA



Tabako saila Kondekoa baserriaren ondoan. JAVIER CARBALLOK UTZIA

Lupulua¹¹

Denok dakigu zer den zerbeza, baina gutxiagok zer den lupulua; zerbezazalea izanez gero, seguru asko bai, ordea; izan ere, zerbeza egiteko

osagai nagusietako bat da. Baina are gutxiagok jakingo dute garai batean gure inguruetan landu zela eta gaur egun ere hurbil aurki daitekeela.



Lupulu landareak, Alikante atzean dela. IMANOL AZKUE



Lupulua loretan. WIKIPEDIATIK HARTUA, DR. HAGEN GRAEBNER

Baina zer da lupulua?
Landare bat da, igokaria
(zurtoinak zazpi/zortzi metro
egin ditzake gora) eta
garagardoari zaporea emateko
erabiltzen da; landaretik lorea

jasotzen da, eta lehortuta,
zerbeza egiteko erabiltzen da.
Euskal Herrian lantzeko
arrazoi nagusia II. Mundu
Gerra izan zen; izan ere,
1944an, gerra zela-eta,

Alemaniatik ez zen lupulurik
iristen zerbeza egiteko, eta
Espainiako gobernuak lupulua
lantzea bultzatu zuen.

Gure amak adierazi digunez,
Oikian, gure attitta Manuelek
landatu zuen, 1955 inguruan,
baina urte bakarrean. Ubide
baten ondoko bi soroak
hartuta, kanaberak
gurutzatuta arku moduan jarri
omen zituen, lupuluaren
aihenak gora egin zezan. Lan
handia eman omen zien, eta
ez omen zuten berriz ere egin.

2021ean, lupulu saila ikusi
nuen Getariako Alikante
baserritik Kamineroetara
jaisteko bidearen ondoan.

Ongarri bereziak

Zumaiar askorentzat
baratzerako oso lagungarria
izan da itsasoa, batez ere

ongarriak eskuratzeko. Izan ere, hainbeste ongarri kimiko eskura ez zegoenean, bestelako batzuk erabiltzen zituzten: hondakin organikoak, animaliek jaten ez zituztenean, baratzeko ertzen batean pilatzen zituzten (orain konposta deitzen zaio) eta gero lurrean zabaldu; itsasoak Itzuruna ekarritako oroldia pilatu eta karroetan soroetara eramaten zituzten, lurrarekin nahasteko; kontserba lantegietako arrainen hondakinak (buruak, tripak...) ere baratzean zabaltzen zituzten.

Jarduera horietako batzuk, ordea, ez zituzten jotzen oso osasungarritzat, eta Udaleko Osasun Batzordea behin baino gehiagotan ahalegindu zen horiek debekatzen edo mugatzen: 1880an, beste neurri batzuen artean, hauxe eskatzen zuen: “Que las algas marinas depositadas en Itzurun las retiren sus dueños inmediatamente a sus heredades, siempre que estas estén situadas en puntos que no perjudiquen a la salubridad, cubriéndolas en todo caso con tierra”¹²; 1886ean, beste hau: “La Junta acordó hechar un bando advirtiéndolo a los vecinos de esta, de que la anchova que traen para abono lebanen desde los muelles antes de las 6 horas y que en la heredad

sean enterrados”¹³; eta, azkenik, egun batzuk geroago, Gipuzkoako Sanidadetik, hauxe adierazi zioten Udalari: “no puede prohibirse que se recojan las algas para dedicarlas a abono o estiércol, pero sí que estas se coloquen en sitios próximos a la población”¹⁴. ■■■

¹ <https://ahotsak.eus/zumaia/pasarteak/zum-010-004/>

² <https://ahotsak.eus/zumaia/pasarteak/zum-063-023/>

³ <https://ahotsak.eus/zumaia/pasarteak/zum-101-025/>

⁴ <https://ahotsak.eus/zumaia/pasarteak/zum-006-027/>

⁵ Baleike, 150.zenbakia, 2006ko abendua. Hemen: <https://baleike.eus/prentsa/647>

⁶ Zumaiako Udal Artxiboa, 71.10, 1850-11-17AN.

⁷ Baleike, 150.zenbakia, 2006ko abendua. Hemen: <https://baleike.eus/prentsa/647>

⁸ BARBARIN, Georges: *Jesusa Gipuzkoakoa (Itzultzailea: Maia Ossa Rissanen)*, Baleike Kultur Elkarte, 2018. 52. or.

⁹ *Asko lagundu didate zati hau osatzen Carmelo Urdangarinen, Jose Ma Izagaren eta Javier Carballoren “Cultivadores de tabaco” artikuluek (Tu lankide aldizkaria, 2004ko abendua eta 2005eko urtarila).*

¹⁰ <https://ahotsak.eus/zumaia/pasarteak/zum-006-020/>

¹¹ *Asko lagundu dit zati hau osatzen Iñaki Sanz-Azkueren Argiako artikulua honek: https://www.argia.eus/argia-astekaria/2537/garagardotarako-lupulua-euskal-herrian-iragana-edo-etorkizuna*

¹² ZUA, 79.01, 1880-10-06an.

¹³ ZUA, 79.01, 1886-12-11n.

¹⁴ ZUA, 79.01, 1886-12-29an.


Amaiera

Hau da “Orduan bai” atalaren azkena.

Oraindik badago zer kontatua, baina etorkizunerako utziko dugu; izan ere, nekatu egin naiz. 2018ko maiatzean hasi ginen, “Zaborrik ez zegoenean...” artikulua erekin, eta harrezkero hutsegite handirik gabe izan gara hemen, orduko kontuak kontatzen; egindakoari begiratuta, uzta oparoa izan da. Orain atsedean hartzeko eta batez ere beste zerbaiti heltzeko gogoia daukat.

Eskerrik asko era batera edo bestera atal hau osatzen lagundu didazuen guztioi, eta bereziki Javier Carballori, argazkiak emateagatik; Xabier anaiari, ohar eta zuzenketengatik; eta Kattani, irakurlearen begietatik gainbegiratzeagatik.

Plazer handia izan da.



ORRAZTEGI ZUMAI A

943-86 20 83

JUARISTI

jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10

tel. 943-05 05 77

KABI Patxeta Etxezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA




Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20



kalarri

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

MAIAUR

ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus **PENCIL**
estudio decoración



Julio Beobide, 2 • ZUMAIA
699 49 52 56
maximusencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91



LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652 / 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com



NOIA S.L.
**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Elengabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar industriagunea, C
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com
www.carroceriasnoia.com



**OSA
BERNIZATUAK**

**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49




OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA S.L.
Joxe Mari Korta Industriagunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 66 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



Rosi *Garbiketak*

**Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa**

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

Performancearen bidetik doan txaranga

MUSIKA

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

90 partitura baino gehiago biltzen dituen liburua plazaratu du Bilboko Txaranga Urretabizkaia musika taldeak. *Partiturak/s* (Popurrit, 2021) du izenburua liburuak eta 2017an taldea sortu zutenetik iazko urtera arte sortutako konposizioak biltzen ditu.

Kontzertu bakarrerako sortutako proiektua da Txaranga Urretabizkaia, eta hazten joan da denborarekin, hasierako sei lagunetatik gaur egungo hamabost musikarietara. Horien artean zumaia bat dago: Jon Mantzisor *Mantxi*, hain zuzen. “Gutako batzuk musikariak gara; badaude artista plastikoak ere, baina baita abokatu, informatikari eta bestelakorik ere. Adin eta lan eremu ezberdinetako jendeak osatzen dugu taldea”, diote txarangako kideek.

Txaranga hitza darama taldearen izenak, baina ohiko txaranga batetik urruti dago. “Ez dugu ohiko txaranga baten musika jotzen, baina bere jai giroa mantentzen dugu. Beste era batera esanda: musika garaikideko musikariak oso zintzoak eta serioak izaten dira normalean; elitista bezala ikusten dira. Gure musika agertoki batean eszenaratu baino gehiago, espazioan sakabanatuta eta mugimenduan jotzen dugu, batzuetan koreografia moduko



Txaranga Urretabizkaia, ekitaldi batean.

bati jarraituz. Batzuek performance bat dela esaten dute, baina guretzat musikaren parte da hori guztia”.

Taldeakide beraiek sortutako obrak jotzen dituzte, eta horiek dira liburuan bildu dituztenak. “Partitura esaten dugu, baina ahozko azalpenak edo jarraibide testualak dira, horietako batzuk grafiko txikiekin osatuta. Ez dugu pentagramarik eta halakorik erabiltzen, askok ez baitugu mailarik horiek irakurtzeko. Konposizioek askotan arau edo

proposamenen itxura izaten dute, joko baten arauen antzera”.

Musika taldea izanda ere, diskoa baino gehiago, liburua argitaratu dute, “urte hauetan sortutako konposizioak ez ahazteko. Guretzat erabilgarria izango zen fanzine bat egin nahi genuen hasieran, baina proiektua konplexuagoa egiten joan da, eta azkenean 200 orrialdeko liburu bat ateratu da”.

Argitalpena liburu dendetan eta www.bellezainfinita.com webgunean eros daiteke. ■

PUBLIZITATEA



SOLOZABAI
autoeskolak

Etexzarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak - Osteopatia - Psikologia zerbitzuak
Psikomotritizitatea - Naturopatia

www.sura.eus

Sura
ZAINITZA
OINARRIAN

Patxita Etexzarreta 17 • 688 71 85 38

talaja
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Trapaia
taberna

Eribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



TTAKUN Izustam, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondeak (kodilloa)
Salxitrak, oilaskoak...
Garagardoak-aurkeran

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etcheberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 • 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 • 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xantia
ALTEARIK

Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com





Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa




ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

TicketBAI
Etorkizunerako prestatzen.





2022an, **TicketBAI** Gipuzkoara iritsiko da. Etorkizunerako prestatzen gaituen online fakturazio-sistema berria.

Anima zaitez zure enpresan edo negozioan borondatezko epean ezartzera eta ezagutu kenkariak eta abantailak.

Informa zaitez

gipuzkoa.eus/ticketbai

Aurrez aurreko informazioa (hitzordua)

943 113 000

ticketbaikontsultak@gipuzkoa.eus



TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

gipuzkoa.eus/ticketbai

AGENDA

ABENDUA

1 ASTEAZKENA

Hitzaldia: Jakoba Errekondo, "Zuhaitzekin bizi".
Oxford aretoan, 18:30ean.

2 OSTEGUNA

Julene Azpeitia sari banaketa eta Fito Rodriguezen **irakurraldi musikatua**.
Oxford aretoan, 19:00etan.

8-12

Klarinete Maratoia.

10 OSTIRALA

Antzerkia: Tartean konpainiaren "Ez dok ero".
Aita Marin, 22:00etan.

11 LARUNBATA

Kontzertua: Modus Operandi.
Eusebio Gurrutxaga plazan, 19:30ean.

16 OSTEGUNA

Ipuin kontaketa: Maite Frankoren eskutik: "Panpinak Aitorrentzat".
Haur liburutegian, 17:30ean.

17 OSTIRALA

Liburu Aurkezpena: *La Cocina del Sr. Aranguren (y su "pintxe" Gorka).*
Oxford aretoan, 18:30ean.

18 LARUNBATA

Ikuskizuna: MAMMA MIA.
Aitzurin, 18:00etan eta 20:00etan.

19 IGANDEA

Haurrentzat Landarbasoren **Zirku Musikala**.
Aita Marin, 12:00etan.

23 OSTEGUNA

Ipuin kontaketa: Kontukantorenen eskutik: "Argi ibili gurekin".
Haur liburutegian, 17:30ean.

24 OSTIRALA

GABON EKITALDIAK
Eguerdia bitartean, Niño Jesusen Eskean.
12:00etan, Odietan hasita Olentzero eta Gomezagorekin kantuan.
17:30ean, Gabon Koruaren saioa kalez kale.
18:00etan, Eusebio Gurrutxaga plazan Gabon kanten lehiaketa.
18:00etan, Eusebio Gurrutxaga plazan Jaiotza ikuskizuna.

26 IGANDEA

Zesta Punta: profesional jaialdia.
Aitzurin, 17:30ean.

26-27

Opera proiektzioa: "Turandot".
Aita Marin aretoan, 19:00etan.

27 ASTELEHENA

Gabonetako Xake Txapelketa.
Oxford aretoan, 17:00etan.

27-28

GABONETAKO PARKEA.
Kiroldegian, 11:00-13:30 eta 16:00-19:30.

29 ASTEAZKENA

Ipuin kontaketa: Apikaren eskutik "Sorgiñak".
Haur liburutegian, 17:30ean.

Antzerki musikala: Kutsidazu bidea Ixabel
Zumaienan, 19:00etan

31 ASTEAZKENA

San Silvestre lasterketa.
12:00etan.

URTARRILA

3 ASTELEHENA

Kimikarin zientzia ginkana (6-12 urte). *Oxford aretoan, 10:00etan eta 15:00etan.*

4 ASTEARTEA

Errege Magoentzat **eskutitzak jasotzea**.
Eusebio Gurrutxaga plazan, 18:00etan.

5 ASTEAZKENA

Errege kabalgata 18:30ean.

BETI ZUREKIN GIPUZKOA

943 903 450

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.



bertako
Igogailuak | Leontineor en
www.bertako.eus



Bi adiskide haize kontra



Adiskide paregabea

Egilea: Elena Ferrante
Argitaratzailea: Igela
Argitaratze urtea: 2015
Orrialdeak: 500
Generoa: Narrazioa



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

Adiskide paregabea Elena Ferranteren Napoliko tetralogiako lehen nobela da, Fernando Reyk euskarara ekarritakoa. 2011 eta 2014 artean idatzi zituen lau liburukiak eta arrakasta itzela izan dute, bai Estatu Batuetan, baita Europan ere.

Lau liburuko sorta horretan, Lila eta Lenuren, txikitako bi adiskideren bizitza kontatuko digu Lenuk. Lehenengo honetan, *Adiskide paregabea*, haurtzaroko eta nerabezaroko gorabeherak kontatuko dizkigu. Bi haur dira nobelako protagonista nagusiak: Lila, eta Lenu; Napoliko auzo batean sortuak, 1944an. Nobela gaur egunean abiatzen da: Lila arrastorik utzi gabe desagertuko da, eta Lenu, hori jakindakoan, euren bizitzaren nondik norakoak kontatzen hasiko da.

Hiru atal ditu: lehenak, Lilaren desagertpenaren berri emango digu, eta gainerakoa iragan garaiei buruzko oroitzapenek osatuko dute; bigarren, atala haurtzarokoek; eta hirugarrena, *Zapaten historia*, nerabezarokoek.

Pertsonaien karakterizazioa da azpimarratu beharreko lehenengo alderdia. Lila, ohiz kanpokoa da zentzu guztietan. Adimentsua da, ausarta, ez du gainontzeko bere ikaskide nesken irizpideen arabera jokatu: ez dio polita izateari garrantzia handiegirik emango, eta indarra erabiltzeko prest egongo da, bere burua defendatzeko. Lenu, berriz, ona da, aparta izan gabe.

Bi haurrak heltzen ari dira, eta euren mundua eta euren barrua nola aldatzen diren ikusiko dugu: lagunarteko tirabirak, eskola, aurreneko sexu harremanak eta abar. Bien harremana maitasunez, jelsiaz, gozotasunez eta tentsioez beteta egon arren, oasi bat izango dute bizi duten mundu itsuaren erdian. Horrekin batera, Napoliko

jendartearen erretratu nabarmena ere bada *Adiskide paregabea*. Napoliko auzo bat izango da protagonista eta idazleak gutxika-gutxika, pertsonaien bitartez, garaiko argazki konplexua osatuko du: politika, historia, botere harremanak, erlijioa... Eta, guztien gainetik, indarkeria, bortxa eta matxismoa.

Badu nobelak gogoetarako beste gai bat ere: aukera berdintasuna. Lilaren bikaintasunak eta dohainek ezer gutxi balioko dute horiek garatzeko aukerarik izan ezean. Kapituluak laburrak eta oso bisualak dira. Fikzioak munduak sortzeko ahala dauka, eta Elena Ferrantesek *Adiskide paregabea*n ñabarduraz eta kolorez betetako mundu sinesgarria loratuko du.

Nobelaren unibertsoa osatzeko hari mutur asko lotu beharko dira; horixe eleberri honek dakarren erronka handienetako bat. Hori lortuz gero, liburuak gosez utziko gaitu, Lilak eta Lenuk, dena kontra eduki arren, elkarrekin aurrera nola egingo duten jakiteko. ■

**LAU LIBURUKO SORTA
 HONETAN TXIKITAKO BI
 ADISKIDEREN BIZITZA
 KONTATZEN DU
 FERRANTEK**

Zoriontasunaren giltza?



PEIO CARBALLO OSTOLAZA

Zoriontasunari buruz idaztea atrebentzia gehiegi ez ote den galdetu diot azken egunetan neure buruari. Baina pistinara salto egitea erabaki dut sakonerari erreparatu gabe.

Zenbat aldiz erabili dugu *zorion* hitza? Zenbat aldiz kantatu dugu “zorionak zuri, zorionak zuri... zorionak beti”? Baina beti zoriontsu sentitzea posible al da? Ez al da utopia?

Groucho Marx-ek zioen zoriona gauza txikiz egina dagoela: yate txiki bat, txalet txiki bat, fortuna txiki bat... Aberastasun txiki horiez gai, unetxoak ere zorion iturri dira: mendira bueltatxo bat, kafetxo bat konpainia onean, musika kontzertutxo bat...

Filosofoek diote bi zorion mota daudela: *hedonikoa* (plazerari lotuta, epe laburrekoa eta kanpoko gauzekin lortzen dena) eta *eudaimonikoa* (norberaren autoerrealizazioari lotuta, epe luzekoa eta barne zoriona lortzen duena).

Zientziak dio gure gorputzak zorionaren lau hormona sortzen dituela: *endorfina* (kirolarekin), *oxitoxina*

(besarkadarekin), *serotonina* (eguzki izpiekin) eta *dopamina* (txokolatea janda). Agian “*end-oxi-sero-dopa*” izeneko pilula magiko bat asmatuko dute, triste gaudenean farmazian erosi eta zoriona dakarrena. Adikzioa sortzeko modukoa...

Bestalde, zorionaren bilaketan kontenplaziozko praktikak modan jarri dira: yoga, meditazioa, mindfulness, tai-chi, etab. Dirudienez praktika horien bidez, kiroldegiko muskulazio gela bailitzan, arretaren “muskulua” garatzen da. Ondorioz, arreta orainaldira ekarriko dugu eta gure pentsamendu maltzurrek ez dute iraganera edo etorkizunera bidaiatuko. Esaera zaharrak dioen bezala: izan burua oinak dituzun lekuan.

**ZORIONTASUNA
EGOERA MENTAL ETA
EMOZIONAL POSITIBOA
DA; BADATOR
ETA BADOA**

Definizioz zoriontasuna egoera mental eta emozional positiboa da, eta emozioa izanagatik badator eta badoa. Adibidez, oraintxe zoriontsu sentitu gaitezke eta telefono dei bat jaso albiste txar batekin eta bat-batean triste sentitu. Eta emozio guztiak dira beharrezkoak gure bizitzan. Gizarteak, ordea, betirako zorionaren mezua saltzen digu, tristurarik gabea, non zoriona lortuz gero, lagun gehiago, diru gehiago eta arrakasta gehiago izango dugun. Horregatik, gizartearen aurrean zoriona goستن eta tristura ezkututzen saiatzen gara. Sare sozialak dira horren adibide.

Baina zorionaren bilaketa etengabe horrek kontrako efektua ekar dezake; izan ere, zoriona obsesiboki bilatze horrek beti zoriontsu sentitu behar dugun itxaropena sortzen du, eta ondorioz zoriontsuak ez garenean zoritxarrekoak sentitzen gara. Hau da, hau, paradoxa!

Azken finean, zoriontasunaren giltza ez ote dugu bilatzen galdu ez den lekuan. ■

yoana
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78

Zalla

• plater konbinatuak
• ogitaratekoak
• oilasko erreak

Upela Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA
AUTOESKOLA

Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com

Memoriaren zabortegia



JUAN LUIS ROMATET

Gure burmuinak informazioa gordetzeko duen edukiera mugatua da? Mugagabea? Nire kasuan biltegia baino gehiago da zabortegia.

Auskalo zergatik, baina badakit Ivan Campok, Real Madrileko futbolari ohiak, Ingalaterrako Bolton futbol klubean jokatu zuela. Futbola ezer gutxi inporta zait, Real Madril gutxiago, eta Ivan Campo zer esanik ez; Bolton non dagoen ideiarik ere ez dut, baina informazio hori burmuinean txertatuta daukat.

Futbolarekin jarraituta, ez dut ahazten institutu garaian, errekreoan, kirol horretan aritzen nintzen une eskasetan, bi gol sartu nituela: bat neure atean (biba ni!), eta bestea aurkarienean, eskuadratik gainera, baloiak kokotean jo eta gero. A zer gola, hori bai!

Atzo gertatu balitz bezala gogoratzen dut 1993. urtean Gasteizera joan ginela Azpeitiko lagun batzuk eta ni Babes in Toyland talde estatubatuarraren kontzertua ikustera; Elefante Blanco aretoan izan zela; behin aretoan sartuta, komunera joateko beharra nuela, atez konfunditu eta kamerinoan sartu nintzela, eta taldea osatzen zuten hiru emakumeak begira geratu zitzaizkidala; gaua Gasteizen pasa eta hurrengo egunean Ordiziara joan ginela autoan, Kilometroetara, Neil Youngen musika topera genuela; behin Ordizian, txiza egitera joan, lagunak galdu, ezagutzen ez nuen Ermuko tipo batekin edaten hasi, eta, zorionez, egunaren amaieran lagunak aurkitu nituela, ze, bestela, ea nola demontre bueltatuko nintzen etxera.

Agian nire bilakaera emozionalean funtzioaren bat izango du, baina hor dut buruan bueltaka, txikia nintzela, Getariatik Zumaiara autoz bueltatu behar genuela, Matutanoren urdaiazpiko zaporeko patatak jan nituela, autoa martxan jarri eta bost segundora mareatu nintzela, sekulako botagurea nuela, eta Zumaiara heltzeko kilometroak ez, metroak kontatzen egon nintzela.

Aieteko konferentziaren egunean ez dakit non egongo nintzen, baina ez zait burutik borratzen behin institutuan, pozaren pozez, esan nuela kloroaren eta formolaren uztartzetik sortu zutela kloroformoa. Esan beharrik ez daukat zientzietan ez nintzela eminentzia handia...

Eta metabolismoagatik izango da, baina Georgie Dannen “la cerveza que buena está, rubia o morena, eso que más da” estribilloa itsatsita geratu zitzaidan abestia behin bakarrik entzunda. Hori ere hor daukat burmuineko izurren artean kateatuta.

Ezinbesteko bizipen horiek denak, denok gogoan izan nahi duzuen informazio hori guztia, oraindik izenik ez duen liburu batean biltzekoa naiz. Datorren urteko Durangoko Azokan izango da eskuragarri. ■■■

**GURE BURMUINAK
INFORMAZIOA
GORDETZEKO DUEN
EDUKIERA
MUGATUA DA?**



Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2

943-57 49 86



Casa BASUSTA



LORATEGIA

*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak
Hileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

Etxez etxeko zerbitzua!

Santiago auzoa, 18

943-86 26 11

www.floristeriabasusta.com



2021 GABONAK

Zumaiako Merkataria

HERRIKO SALTOKIETAN
EROSTEAK SARIA DU



1.000€

200€-tako 5 bono
zozketatuko dira



**GABONETAKO
6 OTAR
EDER**